

PROGRAMA  
EUSKERA

URTARRILA OTSAILA MARTXOA 2022



AZKUNA  
ZENTROA  
ALHÓNDIGA  
BILBAO

Bilbao

gizartea eta kultura  
garaikidea

# Aimar Arriola

## *Un deseo de forma (Forma-desira)*

Ikerketa-proiektua eta programazio publikoa

Joan den azaroaren 18an egin zen *Forma-desira* proiektuaren laugarren jarduera publikoa, [Aimar Arriola](#) komisarioak Azkuna Zentroko ikertzaile AZKide gisa garatzen duen proiektuarena. Izan ere, 2020ko udazkenean hasitako Forma-desira proiektua da zentroko programazioaren barruan arte eta queer ikuspegiaren arteko harremana areagotuko zuen lan-ildo propioa garatzeko jaso zuen gonbidapenari Arriolak emandako

erantzuna. Gaingiroki, proiektuaren arabera, queer-a formen potentzial aldakorrari dagokion ezaugarri plastiko bat da, eta, horregatik, bizitzari dagokion gaia da. Proiektuak aurrera egiten du, berezko ikerketa-metodologia baten arabera, bertako eta nazioarteko artistekiko lankidetzaren prozedura nagusizat hartuta. Aldez aurretik bilatzen dena ezagutu beharrean, zientzia handian bezala, *Forma-desira* ikerketaren helburuak elkarlanean azaleratzen dira.

Azaroko hitzorduan [Sands Murray-Wassink](#) izan zuten gonbidatu, Amsterdameko eszena artistikoan queer kultuko figura, eta bere praktika aurkeztu zuen, arte interseksional feministaren eta queer-aren ondarearekin zordun dena. Murray-Wassink-ek pintore, gorputzaren artista eta lurrinen bildumagileztan hartzen du bere burua. *Forma-desira* proiekturako egin zuen saioak hitzaldi eta performancearen arteko forma hibridoak hartu zuen, eta zuzeneko pinturak ekintza luze batekin amaitu zen. Honela deskribatzen du Arriolak han gertatutakoa: "Lurrin-hodei batek bildu zituen espazioa eta gorputzak Sandsen performancean. Ekintzaren une jakin batean lurrina erabiltzeak, eta artistaren eta haren deia entzunda han bildu ginenen artean sortu zen energiak ere, afektibitatezko



Sands Murray-Wassink. *Forma-desira* proiekturako egindako saioko une bat

eta zentzuzko bilgarri bat sortu zuen, oraindik dardara egiten duena. Gorputzak eta egoerak modu sentikorrean bildu eta inguratzeko lurrinak duen gaitasuna, bilgarri hori iraunkorra edo ikusgarriega izan gabe, horixe eraman nahi nuke hurrengo hiru hilabeteetan egingo dudana, lan horretan saiatuko bainaiz orain arte nire proiektuan gertatu denaren zati bat idatziz jasotzen. Hortik aurrera, prozesua beste gonbidatu batzuegana eta une publikoetara zabalduko da."

Era berean, Azkuna Zentroko artxiboari egindako ekarpen garrantzitsu gisa, eta ikerketa-prozesua dokumentatzeko modu gisa, *Forma-desira* proiektuak *Oriak* argitalpen-sorta proposatzen du, zentroaren webgunean aldizka modu digitalean argitaratuta. Parte hartzen duten artistei enkargatutako testu libreak dira, beren ekintza publikoak zabaltzen eta osatzen dituztenak.

2020-2021ean, Dogartzi Magunagoicoechea, Manu Arregui, Camila Téllez (Eszter Katalinekin elkarlanean), Pablo Marte eta Sands Murray-Wassink artistek hartu dute parte Forma-desira proiektuan. Proiektuaren programazio publikoari berriz ekingo zaio 2022ko udaberrian.



Sands Murray-Wassink. *Forma-desira* proiekturako egindako saroko une bat.